

AZOKETAKO SALTZAILEAK

·Elkarrizketa: Asier Osinalde ·Zuek bai jakin!/: Daniel Martinez ·Izerdi patsetan: Benito eta Laka ·Boteprontoan: Beatriz Perez

Herri Aldizkaria Otamotz

2010eko
urtarrila
153. alea




Herri Aldizkaria
Otamotz.com

Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda,
inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...
URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN
BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!

La★Salle Legazpi

Zumarraga - Urretxu

Haur Eskola
0-3 urte



Haur Hezkuntza
3-6 urte



Lehen Hezkuntza
6-12 urte



DBH
12-16 urte



MATRIKULA EPEA: otsallaren 1etik 12ra
BILERA: otsallaren 2an, 16.00etan eta 19.00etan
Telefono/fax: 943 72 15 14
Web orria: www.lasallelegazpi.es

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Oihana - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Azoketako saltzaileak
- 10 Elkarrizketa**
Asier Osinalde
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Azoketara joatea gustatzen al zaizu?
Zer erosten duzu joaten zarenean?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 16 Klik eta klik**
Josu Perez
- 18 Zuek bai jakin!**
Daniel Martinez
- 23 Argazki zaharra**
- 24 Gure gomendioa**
- 25 Izerdi patsetan**
Benito eta Laka
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Beatriz Perez



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Azoketako saltzaileak

Urretxu eta Zumarragan azokek tradizio handia dute. Herritar asko ostegunetan Gernikako Arbola plazara eta larunbatetan Euskadi plazara joaten da erosketak egitera. Baina, nolakoa da merkatuetan lan egiten duten saltzaileen bizimodua? Hori jakiteko, hainbat lagunengana jo dugu: Antonia Murgiondo baserritarrarengana, fruta saltzen duten Rueda lehengusuegana eta arropa saltzen duten Miren Apaolaza eta Bert Stroud-engana.

Antonia Murgiondo: “Gaur egun ezin da produktu bakar batekin joan azokara, bat hartzen duenak beste bat ere eskatzen baitu”

Antonia Murgiondo, Zumarragako azokan.
Argazkia: Gotzon Aranburu.



Antonia Murgiondo Mutiloko baserri batekoa da eta umetan bere amari inguruko azoketara laguntzen zion. Gabiriako Bekoetxe baserrira ezkondu zen eta duela 22 urte negutegiak jarri zituzten. Orduetik larunbatero Zumarragako plazara etortzen da. Gainera, Santa Lutzi egunean hainbat sari irabazi ditu.

Betidanik baratzean lan egindakoa al zara?

Bai. Ni Mutiloko Agirieta baserrikoa naiz. Gure ama zena Ordiziako eta Legazpiko azoketara joaten zen: negu garaian sagarrak saltzen zituen eta uda garaian arrautzak, untxiak, oilaskoak, barazkiak... Etxean beti hori ikusi dugu eta guri ere laguntzea tokatzen zitzagun. 14 urte bete arte eskolara joaten ginen, baina etxean ere laguntzen

genuen. Egungoek baino askoz ere gehiago laguntzen genuen etxean. 16 urterekin azoketara joaten hasi nintzen. Egia esan, beti gustatu izan zait etxeko produktuak saltzea eta jendearekin harremana izatea.

Senarraren baserrian ere betidanik izango dute baratzea.

Hala da, baina duela 22 urte gogorrago lan egiten hasi ginen: negutegi bat jarri genuen eta handik bi urtera bigarrena. Orduetik atera hiru azoketara joan gara: Ordiziara, Legazpira eta Zumarragara. Dena den, senarrak beti baserrietik kanpo ere lan egin du. Nik lehen urteetan senarraren gurasoak zaindu nituen eta seme-alabak hazi nituen eta gero... lanera!

Zer saltzen duzu azoketan?

Barazkiak eta fruta. Intxaur eta sagar asko ditugu. Barazkiei dagokienez, negu garai honetan izaten dugu jenero gutxien: letxugak, zerbak, porruak, espinakak, arbiak, aza, azalorea... Denetik pixka bat jartzen saiatzen gara. Udan, berriz, tomatea eta leka izaten dira nagusi.

Eskaintza zabala duzue...

Gaur egun ezin da produktu bakar batekin joan azokara, bat hartzen duenak bestea ere eskatzen baitu. Gu hasi ginetik asko aldatu da kontua: lehen baratzean barazki mota gutxi izaten zen eta eskatu ere gutxiago eskatzen zen. Orain jendeak denetik eskatzen du eta denetik izan behar da.

Asko aldatu al dira azokak?

Saltzaileak lehen baino gutxiago gara eta lehen bezainbeste edo gehiago saltzen da, ez noa hori ukatzera. Ekoizle gutxi gaude: garai batekoak zahartzen

ari gara eta gazteek beste bide bat hartu dute. Lantegian zortzi ordu pasatzea baserrian lan egitea baino samurragoa da. Baserria lotua da: baratzeari kasu egin behar zaio, ezin da oporretara joan eta hau itxi...

Zure lagun askok azoketara joateari utzi diotela aipatu duzu. Horrek pena emango dizu.

Pena handia ematen du, bai. Zenbat eta saltzaile gehiago, orduan eta saltsa handiagoa eta erosle gehiago.

Zer egin daiteke azokak indartzeko?

Azoketara erostera joan. Etekin handia dagoela ikusiko balu, jendea baserrian

“Saltzaileak lehen baino gutxiago gara eta lehen bezainbeste edo gehiago saltzen da, ez noa hori ukatzera”

lan egiten hasiko litzateke. Toki guztietan denetik dagoenez, toki guztietan erosten da.

Zergatik joaten zara Ordizia, Legazpi eta Zumarragako azoketara eta ez beste batzuetara?

Gertuen ditugunak dira. Horietan hasi ginen eta horietan jarraitzen dugu. Udan Aretxabaletara ere joaten naiz. Niretzat azoka oso ona da, ni baina bertara joaten den baserriar bakarra.

Lehiaketetara ere aurkezten zara.

Neguan horretan ibiltzen gara. Altsasun hasten gara. Ondoren, Zumarragara,

Donostiara, Elgoibarrera eta Debara joaten gara. Fruta eta barazkiak aurkezten ditugu. Zumarragan bi sari lortu ditugu, Urretxun beste bi, Donostian hiru eta Altsasun bat.

Sekreturik ba al dago?

Lan asko egin behar... Gainera, gero eta jende gutxiago dago horrela ibiltzeko prest. Sagarrondoari kasu gutxi egiten badiozu ale txikia ematen du eta txikiarekin ezin da inon aurkeztu. Sagar handiak lortzeko, berriz, zuhaitzari kasu egin behar zaio: kimatu, simaur pixka bat bota...

Zergatik gustatzen zaizu horrenbeste lan hau?

Baratzean aritzea etxetik kanpo lan egitea baino egokiagoa iruditu zitzaidan eta, egia esan, gustura bizi izan naiz. Gainera, azokan saltzea ere beti gustatu izan zait.

Zer da gogorrena?

Ereitea. Saltzea samurragoa da. Feria batean saltzen ez dena hurrengoan saldu daiteke.

Luzaroan jarraitzeko asmoa al duzu?

Luzaroan zaila da, dagoeneko urte asko ditugu eta... Guk ez dugu datarik jarriko: ahal bitartean jarraituko dugu.

Seme-alabek ez al dute jarraitzeko asmorik?

Hiru seme-alaba ditugu: seme bat eta bi alaba. Hirurek etxetik kanpo lan egiten dute, baina asko laguntzen digute. Izan ere, baserrian pertsona bakar batek ez du ezer egiterik: esku asko behar dira. Seme-alabek ere asko maite dute baserria, baina hemengo lanarekin jarraitzea zaila izango da. Egia esan, nahiago dut eurek hemengoa baino bizimodu erosoagoa aukeratzea.

Miren Apaolaza eta Bert Stroud: “Dagoeneko handizkarien biltegi gehienak txinatarren esku daude”

Miren Apaolaza urretxuarrak eta Bert Stroud ingelesak Donostian ezagutu zuten elkar. Handik gutxira Asiara joan ziren eta kontinente hau asko gustatu zitzaizkien. Denboraldi batez bertan bizitzea erabaki zuten eta, bizitza aurrera ateratzeko kalean saltzen hasi ziren. Ordutik 20 urte baino gehiago pasatu dira. Besteak beste, eurek diseinatutako arropa saltzen dute: bai dendetan eta bai azoketan. Larunbatero Zumarragako plazan izaten dira.

Nolatan hasi zineten kale-saltzaile lanetan?

20 urte baino gehiago pasatu dira ordutik. Irakasleak ginen eta elkar ezagutu eta gutxira Tailandia eta Birmaniara bidaiari egin genuen. Borobila izan zen: astebete Irrawaddy ibaitik nabigatzen, sei egun Tailandiako junglan trekking egiten, astebete Koh Samui irlako hondartza batean kokondoan azpian etzanda... Gainera, Bangkok hiria munduko tokirik exotikoena iruditu zitzaigun. Bueltan urtebeteko eszedentzia amesten genuen. Asiara itzuli nahi genuen, baina nola egin ia dirurik gabe?

Eta zer egin zenuten?

Bert-en ikasle batek Japonian ingelesezko irakasleak behar zituztela esan zigun. Motxilak goraino bete, Tony Wheeler-en gidaliburua irakurri eta abiatu egin ginen... Gure asmoa bertan urtebete pasatzea zen, baina bederatzi urte eman genituen: batez ere Tokion. Bert-ek ingelesa irakasten zuen eta nik hasieran euskara eskolak eman nituen Waseda Unibertsitatean. Hiru ikasle nituen. Gaztelera eskolak ere



Miren Apaolaza eta Bert Stroud, euren postuan.
Argazkia: Gotzon Aranburu.

eman nituen. Azkenean, gure ostatuan bizi ziren gainontzeko etorkinak bezala, azoketan saltzen hasi nintzen. Gustura, gainera. Ordurako nire ahizpa Itzi eta anaia Yoneli hemen ziren. Baita Bert-en anaia gazteena ere.

Zer saltzen zenuten?

Hasieran bidaietan aurkitzen genuena: Egiptoko papiroak, Tailandiako zilarra, Toledoko damaskinatua... 1991an Indonesiako Bali irlara joan ginen. Hura

ere izugarri gustatu zitzaigun eta gainera gure negozioarako interesgarria iruditu zitzaigun. Ordutik hango arropa, txapelak, poltsak... saldu ditugu: hasieran Japonian eta 1997tik hona hemen. Izan ere, aipatutako urte horretan Donostiara itzuli ginen.

Zer moduz ordutik?

Zen lorategiak egitetik bizi nahi nuen, baina zaila da. Irakaskuntzan edo beste norbaitentzako lan egitea baztertu ondo-

ren, gure marka eta mikroenpresa erre-gistratu genituen: Tool Factory. Orduetik Baliko eskulangintza, arropa eta osagariak saldu ditugu dendaz denda. Gustura ibili gara, baina azken urteotan bezeroen erdia galdu dugu.

Zergatik?

Alde batetik, eskaintza etengabe berritu behar da (ez da olibak edo bakailaoa saltzea bezala) eta oso zaila beti asmatzea. Gainera, ez dago bezeroen dendetatik gertu aparkatzerik isuna jaso gabe. Nola egingo ote dute Zara eta Cortefieleko banatzaileak? Horren adibidea Zumarragan bertan dugu: Piedad kalea berritu dute, baina karga eta deskargarako tokia jartzea ahaztu zaie. Bestalde, denda hippy tradizional asko itxi egin dira edo beste era bateko arropa saltzera pasatu dira: marka ezagunak edo txinatarren biltegiatiko jeneroa.

Txinatarrek lehia gogorra al dira?

Aurten Parisera eta Madrilera joan gara azokan saltzeko arropa bila eta dagoeneko handizkarien biltegi gehienak txinatarren esku daudela ikusi dugu. Europako arropa industria pikutara joan da, ez baitago txinatarrekin lehiatzerik: merke saltzen dute, oso langileak dira, gobernuen babesa dute, azkar ikasten dute... Bisitatu genuen azken biltegiak egunero 20.000 eurotik gora saltzen duela kalkulatu genuen. Ondorioz, denok jantzi eta osagai berberak ditugu salgai. Txinako arropa bakarrik saltzeari beste arrisku bat ere ikusten diot: oraingoz bertakooi salmenta uzten digute, baina hasieran *Todo a Cien* delakoak hemengo jendearen esku zeuden eta gero eurak hasi ziren denda horiek kudeatzen. Arropa dendekin berbera

gerta daiteke. Paris eta Londonen dagoeneko txinatar gazteen boutique dotoreak ikus daitezke.

Zer egin duzue egoera berri honetara egokitzeko?

Bezeroak galtzen ari ginenez, azoketan saltzea aukera egokia iruditu zitzaigun. Berehala ikusi genuen artisau azoketan ez ginela sartuko. Izan ere, hemen diseinatutako gauzak saltzen ditugun arren, kanpoan egiten dira. Orduan, udalek antolatzen dituzten asteroko azokekin saiatu ginen. Zeintzuk diren azokarik

*“Elurra egin duen
egunetan ez dute plaza
garbitu: ez gara
multinazional bat, baina
halakoak egitea ere...”*

onenak? Eskaera bete eta hurrengo hilabetean hastea daukazula esaten badizute, badakizu denbora galduko duzula. Zortzi edo hamar urteko itxaron zerrenda dagoela esaten badizute, azoka ona den seinale. Donostian eskaera egin eta urte eta erdira sartu ginen han erroldatuak gaudelako. Zumarragan urtebetera sartu ginen ni Urretxukoa naizelako. Gainontzeko gutzietan jai daukagu: toki bat libratzen denean bertan erroldatuek dute lehen-tasuna. Berdin da hemengo ala Tombuctukoa izatea, jenero berezia saltzea edo gainontzekoek duten berbera ekartzea...

Ez al duzue sekula zuen denda irekitzea pentsatu?

Bai, baina Donostian alokairuak oso garestiak dira. Donostiako udaletxean babes ofizialeko lokala eskatu nuen eta funtzionarioak martetarra banintz bezala begiratu ninduen. Baina hori ez da nik asmatu dudan zer edo zer: Gasteizko alde zaharra dendarik gabe gelditu da Boulevard ireki zutenetik eta Udalak lokal batzuk hartu ditu. Gure bezero bat horietako batera joan da eta hilero 400 euro ordaintzen ditu. Donostia ez da Gasteiz, baina mobilizatzen garenerako berandu izango da...

Zer egin behar duzue orduan?

Udaberrian gure azoka propioa irekiko dugu gure biltegian. Gune komertzial batean ez dagoenez, zer edo zer egin beharko dugu jendea erakartzeko. Plazan eta dendetan saltzen dugun jeneroaz aparte trukerako txoko bat jarriko dugu.

Zein da zuen lanaren alderik gogorrena?

Azokan karpa muntatu eta desmuntatu beharra, euria, haizea, hotza... Eguraldiaz ari garela, elurra egin duen egunetan ez dute Zumarragako plaza garbitu. Ez gara multinazional handi bat, baina halakoak egitea ere... Gabonak aurreko bi igandetan Donostian ez zen azokarik izan Realaren partidak ordu berean zirelako. 100 postu izaten dira! Ba al dakizue zer esan zigun Udaleko azoka arduradunak: Real Lehen Mailara igo dadin otoitz egiteko!

Eta zein da alderik gozoena?

Jende asko hurbiltzen da eroatera. Bestalde, azoketan ordu gutxi egoten garenez, oso denbora gutxi galtzen da bezeroen zain.

Rueda lehengusuak: “Udalek ez gaituzte behar adina babesten: toki itxiak egokitu beharko lituzkete guretzat”



Rueda lehengusuak, Mugitegi industrialdean duten biltegian.

Rueda anaiak Extremaduratik etorri ziren. Fabriketan hasi ziren lanean, baina gero euretako batek hestebeteak saltzeari ekin zion eta beste batek fruta saltzeari. Azkenean hiru anaiak elkartu egin ziren fruta saltzeko. Hamaika merkatu ezagutu dituzte. Egun negozioa euren seme-alaben esku dago. Euretako laurakin hitz egin dugu: Constan, Txema, Jose Antonio eta Javirekin.

German Rueda, Constanen aita, izan zen azoketan lan egiten hasi zen lehena. “Nire aita goizetan azoketara joaten zen hestebeteak saltzera eta arratsaldeetan Irimora joaten zen lanera. Hasieran karro bat erabiltzen zuen eta gero *Dos Caballos* bat erosi zuen. Hemengo fruta-saltzaile bat soldadutzara joan zen eta osaba Juanek haren negozioa hartu zuen. Horretarako Orbezo lantegiko lana utzi zuen. Hala

eman zituzten zenbait urte: bata hestebeteekin eta bestea frutarekin. Azkenean, elkartu egin ziren”, oroitzen du. Iaz 40 urte bete zituzten fruta munduan, Txema Ruedak ondo gogoratzen duen moduan. “Nire amak maiatzaren 1eko 1969an hasi ginela esaten du”, beti. Constan Ruedak lehen urteak oso gogorrak izan zirela dio. “Urola kalean bizi ginen, zazpigarren solairuan, eta

etxe hark ez zuen igogailurik. Hasieran etxean bertan gordetzen genuen azokan saldu beharrekoa eta ondoren Zelai Ariztiko etxe batean gela bat alokatu genuen. Aurrerago San Isidro kalean biltegia erosi genuen. Frutarekin lan gehiago zegoenez, 1972an hestebeteak saltzeari utzi genion”.

Ordutik, birritan biltegiak aldatu dute, dendak ireki dituzte, seme-alabek gurasoen lekukoa hartu dute... “Zortzi seme-alabetatik bostek honetan lan egiten dugu: guk lauok azoketan eta Maribelek dendan”.

Urte hauetan guztietan hamaika tokitan saldu dute. “Haurrak ginenean auzoz auzo joaten ginela gogoratzen dut”, dio Txemak. Azokei dagokienez, Azpeitian, Ordizian, Urretxun, Legazpin, Zumarragan, Azkoitin, Aretxabaletan, Zumaian, Eskoriatzan, Zestean, Beasainen, Tolosan... saltzen dutela diote. “Astero hamalau azokatarako joaten gara: ostiraletan lautara, larunbatetan eta astearteetan hirutara, ostegunetan bitara eta asteazkenetan eta astelehenetan bakarrera”, azaldu dute. Horretaz gain, bi denda dituzte. “Dendak emakumeen esku daude. Guk jeneroa eramaten diegu, baina beraiek dute ardura”.

Fruta Mercabilbaotik ekartzen dute. “Hasieran Kalagorritik ekartzen genuen, gero Valentziara, Gironara, Lleidara, Zaragozara... joan ginen. Egun ia guztia Bilbotik ekartzen dugu”. Eskaintza lehen baino askoz ere zabalagoa da. “Garai baten neguan laranja, mandarina, sagarrak eta madariak bakarrik ekartzen genituen eta egun, berriz, nahi bezainbeste artikulu. Urte guztian zehar denetik dago: izan ere, hego hemisferioan orain uda da eta handik ekartzen da. Hala,

oraintxe bertan udako fruta eros daiteke. Guk gereziak bakarrik ekartzen ditugu, baina melokotoiak, albarikokeak, aranak... ere eros daitezke”.

Are gehiago, garai batean ezagutzen ez zituzten aldaerak ere saltzen dituzte. “Nork esango zigun guri duela 30 urte aguakateak saldu behar genituela? Kiwiak ekartzen hasi ginenean ale bakoitzak 100 pezeta balio zuen. Banaka erosten ziren eta kaxa bat bakarrik eskatzen genuen. Zeelanda Berritik ekartzen ziren eta munduko gauzarik exotikoena irudi-

“Azoketako giroa atsegin

dugu, nahiz eta neguan

lan gogorra den. Gainera,

saltzaileen artean

harreman ona dugu”

tzen zitzaigun. Egun Frantzia eta Italiatik ekartzen dira”, azaldu du Txemak. Hala, kiwiak lehen baino askoz ere merkeagoak dira. Lekekin berbera gertatu da, egun gehienak Marokotik ekartzen baitira.

Beste gauza asko ere aldatu direla diote. Euren lana, adibidez, garai batean baino erosoagoa da. “Jeneroa munduko txoko guztietatik heltzen da, baina ia dena Mercabilbaon erosten dugu. Lehen Lleidaraino joan behar izaten genuen, baina garaian garaikoa bakarrik ekartzen genuen. Egun gertuagotik hemen garaikoa ez dena ere ekartzen dugu. Izugarria da: kamioiez ekartzen ez dutena, hegazkinez edo trenez ekar-

tzen dute. Bestalde, baliabide asko ditugu. Lehen dena eskuz kargatzen genuen eta fruta soltean ekartzen zen kamioietan: atea ireki eta laranja lurre-ra erortzen ziren. Palekin jasotzen genituen”, gogoratzen dute.

Batzuek garai hartan fruta gehiago jaten zela diote. Besteek ezetz. “Lehen orain baino toki gehiagotan saltzen da fruta. Gu hasi ginenean Eroskirik ere ez zegoen. Azoketan aste osorako erosten zuten eta orain, berriz, egun pare baterako”, azaldu du Txema Ruedak. Kompetentzia lehen baino gogorragoa denez, kalitatezko fruta ekartzearen aldeko apustua egin dute.

Ikusten denez, eskaintza, kontsumo-ohiturak... asko aldatu dira. Azokak, ordea, ez dira aldatu. “Lehen bezala, guk muntatu behar dugu postua. Udalek ez gaituzte behar adina babesten: toki itxiak egokitu beharko lituzkete guretzat. Eguraldi onarekin ez dago arazorik, baina beste batzuetan ez dago lan egiterik. Gehienentzat diru-iturri bat besterik ez gara. Dena den, Urretxuko Udalaren jarrera hobea dela esan behar da: bi hilean behin gurekin elkartzeko da, elurra egin zuenean plaza garbitu ziguten... Elurra kentzen ez duten herrietan euren herritarrei kalte egiten ari dira!”, diote.

Dena den, azokako lana gustuko dute. “Bertako giroa atsegin dugu, nahiz eta neguan gogorra den. Gainera, saltzaileen artean harreman ona dugu”. Hala ere, etorkizunean bertako fruta-saltzaileak ikustea zaila izango dela diote. “Gazteek ez dute lan hau nahi. Izan ere, egunero lan egin behar da. Etorkizunean azoketan etorkinak bakarrik egongo dira”, amaitu dute.

Asier Osinalde: lantegian piezak egitetik baserrian gaztak egitera

*Duela urte batzuk, zorioneko krisia heldu aurretik, Asier Osinalde zumarragar-
rrak fabrikako lana uztea eta bere emaztearen baserrira joatea erabaki zuen.
Denek zorotzat hartu zuten. Izan ere, baserriko bizimodua gogorra da eta garai
hartan industriaren hazkundera mugarik ez zuela izango zirudien.*

Asier Osinalde, arkume bat eskuetan duela.



**Zer harreman zenuen baserri mundua-
rekin Gabiriako Bazterrika baserrian
artzain lanetan hasi aurretik?**

Nire gurasoak baserrikoak dira. Ama lburreta Azpikoa baserrikoa da eta han lan gutxi egiten nuen, baina zer edo zer egiten nuan: udan belarretan, adibidez. Bestalde, aitzak Urretxuko Elizalden baratze txiki bat eta bi txabola zituen. Sei bat ardi, txerri bat, 20 bat oilasko eta dozena bat oilo zituen. Txabolara anaia eta ni joaten ginen. Berak ezin zuenean, ni joaten nintzen. San Tomas egun batean Donostiatik arratsaldeko zazpitan ardiak jeztera itzuli behar izan nuela gogoratzen dut. 16 bat urte nituen eta alde zaharrea oso gustura nengoen...

**Garai hartan baserri batean lanean ari-
tuko zinela esan balizute, zer erantzun-
go zenuke?**

Ez nuen sinetsiko. Are gutxiago hemen dugun ardi kopurua ikusita.

**Nola egin zenuen lantegitik baserriko
jauzia?**

Aitagarrebak tailer batean egiten zuen

lan, amaginarreba apur bat nekatuta zegoen baserriko lanaz eta ardi kopurua txikitzea pentsatu zuten. Nire koinatuek ez zuten baserrian jarraitzeko asmorik eta emazteari gu gelditzea proposatu nion. Hasieran ezetz esan zidan. Bi lanak uztartu beharra zegoela esan zidan, baina nik bata eta bestearen artean hautatu behar zela erantzun nion: ez nuen gaueko errelebotik atera, etxera heldu eta ardiak jetzi nahi. Edo gaueko bederatzietan belarretan bukatu eta lantegira joan.

Ez al zinen ezeren beldur?

Banekien diru aldetik arazoak izango genituela. Lantegian ondo kobratzen nuen, etxea ordaindu behar nuen eta umea bidean zen, baina baserriak jaten emango zidala banekien eta etxea ordaintzeko adina diru ateratzearekin konformatzen nintzen. Gainera, tailerrean ez nengoen gustura. Lan ona nuen, baina ez nengoen ados enpresak zerman martxarekin. Orain arrazoi nuela ikusi da: enpresa atzeratuta gelditu da

eta jende asko kalera joan da. Bestalde, jende asko lanera joaten zen, baina lanik ez zuen egiten.

Etxekoak zuk konbentzitu behar izan zenituela esan duzu. Inoren babesik jaso al zenuen?

Denek zoratuta nengoela esan zidaten. Ea zer egin behar nuen ba al nekien galdetzen zidaten. Baserrikoa lan gogorra dela, ezingo nuela parrandarik egin... esaten zidaten. Eragozpen bakarra musika utzi beharra izan zen. Gainontzekoan ondo moldatu naiz.

Dena den, hasiera gogorra izango zen.

Bai. Diru aldetik oso gaizki ibili nintzen. Bizimodu batera ohituta geunden eta horri heldu nahi genion, baina ezinezkoa zen. Hilabete askotan zenbaki gorritan izan ginen, baina aurrera egitea lortu genuen. Orain beste bizimodu bat eta pentsatzeko beste era bat dugu. Gastuak murriztu genituen eta kito. Ez dugu goserik pasako eta beti izango dugu dirua poltsikoan, gutxi bada ere.

Lanean ondo moldatu al zinen?

Hasiera gogorra izan zen, pentsa lehen urtean 15 kilo galdu nituen... Hemen egon beharra dago... Lana eguzkia irteten denean hasten da eta sartzen denean bukatzen da. Gainera, egunero dago lana. Dena den, egun batzuk besteak baino lasaiagoak dira. Gauzak lasai hartzen saiatzen naiz, baina belar garaian adibidez, gogor lan egin behar da.

Zergatik merezi du orduan baserrian lan egitea?

Lasaitasunagatik. Hemengo arazoak norberarenak dira. Tailerrean beste baten arazoak konpondu behar dira. Hemen norberak konpondu behar du dena eta ezin da kanpokoei begira ibili. Baserriko obra

guztiak, adibidez, guk egin ditugu. Asko ikasten da.

Gazte gutxik hartzen dute zuk hartu zenuen erabakia.

Nik hemen dagoeneko dena zegoelako eman nuen pausoa. Bestela, ez nintzen honetan hasiko. Ezta pentsatu ere! Gure instalazioek diru asko balio dute eta horri buelta emateko hilero diru asko behar da. Dirulaguntzak ematen dituzte, baina... Badago egitasmoak dituen jendea, baina laguntzen eske joaten direnean lotu egiten dituzte: egitasmo txiki

“Tailerrean beste baten

arazoak konpondu

behar dira. Hemen

norberak konpondu

behar du dena”

bat aurkezten dute, baina gauza handiagoak egitera bultzatzen dituzte. Guri ere hori gertatu zaigu gaztagintzaren prozesua erakusteko dugun txokoarekin: proiektuaren erredakzioa dela, burokrazia dela...

Artzain lanetan hasi zinenean jendeak zorotzat hartu zintuen. Orain zer esaten dizute?

Gazta ona egiten dudala. Hori da esan diezadaketen gauzarik onena: azken finean, gaztatik bizi gara eta txarra egiten badut ez dut salduko. Bestalde, jende asko baserrira bertara etortzen da erostera eta aurrekoan erositako gazta oso ona zegoela esaten dit. Horrek

sekulako poza ematen dit. Batzuek 50 kilometro egiten dituzte hiru gazta erosteko eta hori eskertzekoa da. Madrilera, Bartzelonara, Segoviara... gaztak bidaltzen ditugu. Gure produktuagatik garraio-saria ordaintzeko prest daudela ikustea poztekoa da.

Azoketara joaten al zarete?

Aurten gutxi joan gara. Ni hasi nintzenean ferietan asko saltzen zen, baina krisiarekin hor ere beherakada izan da. Azoka batzuetara joateari utzi genion eta saltoki berrien bila hasi ginen: harategiak, adibidez. Donostian bi bezero berri lortu genituen eta horrek urtea aurrera ateratzen lagundu digu. Hamabostean behin 30 kilo saltzen ditugu bertan. Urretxun, Zumarragan, Ordizian, Ormaiztegin eta Antzuolan ere eros daiteke gure gazta. Supermerkatuetan ere saltzen dugu, Carrefourren, baina Artzain Gazta elkartearen bitartez.

Gaztaz gain, zer edo zer gehiago saltzen al duzue?

Ordizian, Antzuolan eta Ormaiztegin esnea saltzen dugu eta gazta zaharra ere egiten dugu. Bestalde, sagarrak edo indabak soberan baditugu salgai jartzen ditugu. Baserritarrek beti egin izan dute hori: ohitura azoketan saltzea da, baina guk etxean saltzen dugu.


Tailerrean lan egindakoa zara. Nola ikusten duzu krisiaren kontu hau?

Urte luzeetan, bai langileek eta baita enpresariak nahi dutena egin dute. Baina langileak bakarrik daude izorratuta eta enpresariak egon beharko lukete gaizki. Langile askok ordu asko eman dituzte lantegian ezer egin gabe. Ni neu ere hori egindakoa naiz.



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal



Nor gorroto duzu?

Zumarraga eta Villarrealen botere faktiko (ia) guztiak izan dira gure analisi eta kritika zorrotz bezain inpartzialen xede. Hilabetez hilabete, zintzo erantzun diogu Brown jaunaren eskaerari. Oraingoan, ordea, mutu geratu gara, egurra noren artean partitu ez dakigula.

Arazoa konpontze aldera (datorren hilean ez dugu ataka berean egon nahi), gure neurona ahituak zuon zeurona emankorrekin uztartzeko ahalegina egin nahi dugu. Faborez eskatzen dizuegu kariño handiegirik ez diozuen bizilagun tokapelotas horren izena bidaltzeko, otsaileko artikuluan bere pasadizoak hizpide izan ditzagun. Hazienda bezalakoak gara. Txibatoak behar ditugu. Inbidiaz bizi den jendea. Hurkoaren zorianak atsekabetez duen herritarra. Geroz eta argumentu fundamentu-gabeagoak izan, orduan eta hobeto.

Ziur boteprontoan hamaika izen bururatuko zaizkizuela. Baldintza batzuk jarri nahi ditugu, ordea.

Hasteko, ez du balio Denis Itsaso elegantearen edo Ignacio Ancho abadearen izenak proposatzekak. Donostiako Artzain Onaren katedralean ostatu hartu duen gotzain famosoak ere ahaztu. Baita Josujon teknokrata edo Jon & Jon binomio gilikratak ere. Beno, ez, gurekin sar zaitezketek nahi baduzue. Gu mintzeko beldurrik ez izan, 1.700 karaktere dituzue nahi bezainbeste egur partitzeko. Datorren hilabeteko artikulua idaztea nahi? Etzan/k galdu aukera! Bigarrenik, urretxuanismoaren jatoritasun eta euskaltasun betierekoak kolokan jarriko dituzten pertsonaiak behar ditugu, Ipeñarrietako lobby-ak zabaldu gura duen irudi ilikoa zikinduko dutenak. Badirudi urretxuar zintzo ororen atzean ezkututzen dela Jehovaharen lekuko bat, fededunen artean azal ederreko liburuxkak banatzen dituenak, panda hartz irribarretsu eta guzti... "Beitu beitu, hau paradisua da. Eta beste aldean infernua dago". Uuuuuuuuhhh!

Azoketara joatea gustatzen al zaizu? Zer erosten duzu joaten zarenean?



Maria Anjeles Carmona



Tarteka joaten naiz azoketara. Egunero ez, baina tarteka bai. Baserritarrei ogia eta barazkiak erostea atsegin dut. Dena den, batzuetan kamisetaren bat edo praka batzuk ere erosten ditut.

Enriqueta Estibariz




Gutxitan joaten naiz azoketara. Santa Lutzi egunean ateratzen naiz, baina berehala joaten naiz etxera. Azokak gustatzen zaizkit, baina jende asko ibiltzen da eta gogaitu egiten naiz.

Jose Maria Aizpurua



Nire emaztea ostiraletan Carrefourrera joaten da. Etxe ondoan supermerkatua txiki bat dugu eta gainontzekoak hor erosten ditugu. Dena den, larunbatetan zerbait behar badugu azokara joaten gara. Orokorrean dendetan erosten dugu.

Patxi Babiano



Bai, gustatzen zaizkit azokak. Giroagatik batez ere. Gainera, Euskal Herritik kanpoko jendea ezagutzeko aukera ematen dute eta hori polita da. Bestalde, garrantzia handia ematen diot bertako produktuak erosteari eta azoketan horiek erosteko aukera dut.

Gaia: Inglesera joan aurrez

Doinua: la guriak egin du

Amaia Iturriotz



1. Inglesera joan aurrez
parkean lotu direnez
Maddi eta Joanes
biak dabilta parrez
hamahiru urte dituzte
hain gutxi eta hainbeste

4. Maddik esan dio izu
emango al dion musu
Joanesez berdintsu
sentitzen du ta, aizu!
Lau ezpainek bi segundu
bihurto dituzte mundu

2. Nahiz kalean ez den bero
hizketan dabilta ero
lagun direnez gero
lau minuturo edo
euren zapatei begira
zergatik isiltzen dira?

5. Isilunez isilune
amildegi, begirune
sentitzen dira xume
berriro ere ume
“ingleseko ordua da
berandu helduko gara”

3. Maddik begirada jaso
orduko Joanes du so
ez ei da ezer jazo...
Egin nahi arren paso
lau masail gorriak ketan:
ez dakite gezurretan

6. So gurutzatuen arten
inglesean testu baten
“love” hitza zaie irten
ta nahiz hitz hau idazten
daramaten hainbat urte,
lehenengo ulertu dute.

iritziz iritzi

Ibon Garmendia



Nora zoaz Bixente?

Gaztelaniaz bada esaera bat, “¿a donde vas Vicente?, a donde va la gente”. Badirudi urtean zehar izaten diren ekitaldi batzuk (bakoitzak gus-tuko dituen gauzetan), historian bakarrak izango direla. Ikusmina pizten digute eta lortzearren gure biziko esfortzua egin behar dugu. Noan harira. Adibidez, Erreala denboraldiaren amaieran igotzeko zorian egoten bada, partida horietan geure buruak ikusi nahiko ditugu Anoetan, edota Bruce Springsteen edo U2 musika taldea Donostiara badator sarrerak lortzeko adi-adi ibili beharko dugu. Korrikalariak lasterka ibili beharko du Behobia-Donostia lasterketa herrikoian parte hartu nahi badu eta Aizkorriko maratoilariek esprinter gisa jokatu beharko dute lasterketan

izena emateko. Bertsozaleak BECeko finalean egon nahi bazuen agudo ibili behar izan zuen. Hori guztia zergatik? Zergatik ez dute musikazale askok areto txikietara hasi berriak entzuterara joateko gogorik edo zergatik ez dute bertsozaleek Luzio Gabiriaren omenezko jaialdira jotzen? Ekitaldi txiki horiek gabe denborarekin ez da ekitaldi erraldoirik egongo. Telebistako iragarkiei adinako arreta jarri beharko genieke herriko kronikei edo paretetan itsasten diren karteiei. Aurrekontuetan murrizpena datorren honetan ekintzaile txikiak mimatu eta irudimena landu beharko dugu. Zoriondu egin nahi ditut 2009an irudimenarekin herrian egindako hainbat gauza. Ea 2010ean gainditzeko gai garen.

Urretxu-Zumarragako euskal eskola publikoa: urtez urte hazten eta hobetzen



Matrikula epea: otsailaren 1etik 12ra

Ate irekien egunak:



**Gainzurin, otsailaren 6an 11.00etan
Institutuan, otsailaren 9an 18.30ean**



Tel.-fax: 943 72 12 14
www.gainzuri.net
e-mail: 012284aa@hezkuntza.net
Sta. Barbara bidea z/g. - Urretxu




Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
www.iparragirre.net
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g. - Urretxu



▼
Azken elurtea.

Josu Perez.



Daniel Martinez: bizikleten bilakaeraren bultzatzaile

Daniel Martinez zumarragarra Orbea bizikleta enpresako lehendakaria da. Enpresa honek 80 urte daramatza txirrinduak egiten eta egun munduko 50 herrialdetara heltzen da. Martinez duela 13 urte hasi zen bertan lanean eta egun Berrikuntza sailean aritzen da.

Daniel Martinez Orbearen maila altuko bizikleta batekin.



Zer esan dezakezu zure familiaz?

Ama Zumarragakoa da eta aita, berriz, Palentziako herri batekoa: Barruelo de Santullan. Aita gaztetan etorri zen eta Talleres Elorriaga delakoan lan egin zuen: Rojo y Zaldua enpresaren parean zegoen lantegi batean. Ama etxeakoandrea izan da, baina gaztetan txokolateroren supermerkatutan lan egin zuen. Bi anaia gara.

Nola oroitzen duzu haurtzaroa?

Leturiatarren plazan bizi nintzenez, kaleko umeak ginen. Han goran bizi garenok 16 urte bete arte edo apenas jaisten gara herrira. Haur asko bizi ginen bertan: pentsa, Leturiatarren plazan 216 etxebizitza daude... Han jolastea gustatzen zitzaidan. Igandetean gurasoek herrira jaisten ziren eta ez zidan grazia handirik egiten.

Non egin zenituen ikasketak?

Umetan mojen eskolara joan nintzen eta gero La Sallera. Ondoren, institutura joan nintzen. Enpresa zientziak ikasi nituen. Lehen urteak Oñatiko ETEOn eman nituen eta karrera Bilbon bukatu nuen. Oroitzapen onak ditut. Ikasketak

zailtasun handirik gabe atera genituen aurrera. Orduan ez nintzen konturatu, baina gerora bi urte horiek beste gauza batzuk ere egiteko aprobetxatu nitzakeela pentsatu izan dut. Ingelesa hobetzeko, adibidez.

Ordurako bizikleta zalea al zinen?

Bai. Sekula ez nintzen lehiatu, baina 15-16 urterekin denboraldi pare bat osatu nuen Goierri elkarteko zikloturistekin. Dezente ibiltzen nintzen, baina gero gauz ateratzen hasi nintzen eta igande goizetan bizikletan ibiltzeari utzi nion.

Ez al zara zikloturista taldera itzuli?

Ez. Dena den, lehenengo semea jaiotzen baino urte batzuk lehenago, 30 bat urte nituenean, lanekoek irteera antolatuta zuten mendiko bizikletarekin eta oso gustura aritu nintzen. Hori dela eta, handik itzultitakoan bizikleta erosi nuen eta emaztearekin ibiltzen hasi nintzen. Berari ere asko gustatzen zaio eta bizpahiru urtetan asko ibili ginen: Bardeetara joan ginen, oporretara bizikletarekin joaten ginen... Lehen semea izan genuenean

bizikletan ibiltzeari utzi genion, baina etorkizunean berriro ibiliko gara.

Nondik nora ibili zara lanean?

Hiper Olaberrian hasi nintzen ireki bezain pronto. Informatika sailean sartu nintzen eta soldadutzan egotea bezala izan zen: ikastearekin eta bizirautearekin nahikoa nuen. Astelehenetik larunbatera lan egiten nuen, 10 ordu egunean. Ostiral gauean lagunekin ateratzen nintzen eta larunbat goizean lanera joan beharra nuen.

Nolatan hasi zinen Orbea enpresan?

Orbea hasi aurretik 15 egun eman nituen Goi Garraioak enpresan. Ondoren, Orbeatik deitu ninduten, hornikuntza arloko buru izateko. Goi Garraioak hala uzteak pena eman zidan, baina joatea erabaki nuen: beste herrialde batzuk ezagutzeko, ingelesez hitz egiteko... aukera eskaintzen zidan.

Zer moduz Orbean?

Lehen bi urteak behin-behineko gisa aritu nintzen eta gero bazkide egin ninduten. Ondoren logistika arduradun izendatu ninduten eta lehendakari hautatu ninduten. Duela urte eta erditik ona Berrikuntza sailko zuzendaria naiz.

Noiztik zara enpresako lehendakaria?

Duela zortzi urtetik hona. Mandatua apirilean amaitzen da eta ea besteren baten aldeko kanpaina egiten dudana... Kooperatiba txikietan ez da hautagairik aurkezten eta jendeak egoki deritzonaren aldeko kanpaina egiten du. Lankideek hautatua suertatuz gero, nire ustez, ezin zaio uko egin. Lehendakariak lan estra du: hilean hiruzpalau bileretara joan behar da. Dagoeneko bi mandatu daramatzat eta lehendakari berria hautatzea komeni da.

Zein da lehendakariaren lana?

Kontseilu errektoreko lehendakaria naiz.

Bederatzi lagun gara. Kudeatzaileak aurkeztutako kudeatze plana onartu genuen eta hilero eboluzioa erreparasaten dugu. Arazoak badaude bestelako erabakiak hartu behar dira, baina niri ez zait halakorik suertatu.

Asko aldatu al dira enpresa eta bizikleta mundua zu Orbea hasi zinenetik?

Bai. Ni sartu nintzenean Orbea garai bolarra gogorra gairatzen zela zetozen: mendiko bizikletak sekulako arrakasta izan zuten, baina boom hura amaitu zen eta Orbea ez zegoen horretarako prestatuta. Esan bezala, ni heldu nintzenerako larrialdia pasatuta zegoen. Garai hartan Orbea Espainian eta Frantzia lan egiten zuen batik bat, baina zabalkunde estrategia garrantzitsua zuen eskuartearen. Egun 50 herrialdeetan gaude, gutxi gorabehera.

“Oker ez banaiz, gurea

Estatu Batuetan

muntaia-katea duen

Europako bizikleta

marka bakarra da”

Europan, Estatu Batuetan, Australian eta Japonen presentzia garrantzitsua dugu.

Nola lortu duzue hori?

Zerbitzuari eman genion garrantzia. Bizikleta munduko multinazional garrantzitsuek (EEBBetakoek, Taiwanekoek, Txinakoek...) bezeroei datorren urtean zenbat bizikleta erosi behar dituzten galdetzen diete. Guk, ordea, ez diegu urte osorako eskaria egiteko esaten: behar

durenean eskatzen uzten diegu. Hori dela eta, bezeroekin hurbileko harremana dugu eta gure inbertsio nagusiak ekoizpen metodoetara zuzendu ditugu. Ia inork egin ezin duena edo egin nahi ez duena egiten dugu: bizikletak *a la carta* eskaini. Hala, ekoizpen ia guztia banan-banako da. Hilean 10.000 bizikleta egiten baditugu stockean asko jota 2.000 ditugu. Hurbileko sistema honekin Europako gainontzeko herrialdeetara bakarrik heldu gitezkeenez, Estatu Batuetan muntaia-katea ireki genuen. Arkansasen gaude, Little Rock hirian. Oker ez banaiz, gurea Estatu Batuetan muntaia-katea duen Europako bizikleta marka bakarra da. Txinan ere bagaude.

Zein bizikleta mota saltzen da gehien?

Bizikleta munduan errepidekoak, mendiakoak, hirian ibiltzekoak eta haurrenak daude. Hirian ibiltzekoak oraindik ez dute indar handia gure artean, baina guk bizikleta horien aldeko apustua egin dugu. Jendeak merkeak erabiltzen ditu lapurreten beldur delako, baina Europan 1.000 euro inguru gastatzen dituzte halako bizikletetan. Orbea errepideko bizikletak saltzen ditu batez ere. Mendiko bizikleta asko ere saltzen ditugu, baina esekidura aurrean bakarrik dutenak gehienbat. Esekidura bikoitzeko bizikleta bikainak ere egiten ditugu, baina marketinga ez dugu horren garatua. Errepidean Euskaltel-Euskadi eta beste talde batzuk ditugu, mendiko bizikletan Julien Absalon munduko txapelduna, triatloian Iron Mana irabazi duen Craig Alexander...

Zuen enpresak 80 urte daramatza bizikletak egiten.

Espainian oso ezagunak gara, baina mundu honetan sartuta ez daudenek

gure marka jaunartzea egitean oparitzen diren bizikletekin lotzen dute. Estatu Batuetan, berriz, oso irudi ezberdina dugu: gure bizikletak goi mailako lehiarekin erlazionatzen dira. Hemen lan handia egiten ari gara marka beste era batera ere ezagutua izan dadin. Perico Delgadok Orbea bizikleta batekin irabazi zuen lehen aldiz Espainiako Itzulia. Beste enpresa handi batzuek, Trek izenekoak adibidez, 13-14 urte bakarrik daramatzate errepideko bizikletak egiten. Bizitza osoa horretan baleramate bezala saltzen dute euren burua. Hemengo enpresek marketingean huts egiten dutela esaten da eta hala dela dirudi.

Kalitatean ez al dago alderik hemengo eta kanpoko bizikleten artean?

Marka handien artean ez dago alderik. Guk koadroa eta osagai batzuk diseinatzeko ditugu, baina gurgilak eta osagai asko beste fabrikatzaile batzuenak dira. Bizikleta etxeen ekarpen nagusia koadroa da. Bakoitza ahal bezala saiatzeko bere produktua bereizten: batzuek arintasunari ematen diote garrantzia eta beste batzuek diseinuari edo biziraupenari...

Goi mailako koadroak karbonozkoak dira. Etorkizunean hala izango al da?

Ez dirudi epe motzean beste material batek ordezkatzeko duenik. Magnesioarekin saiakera batzuk egin dira, baina ez dira aurrera atera. Nire ustez, guztiok gure produktua bereizteko lanean ari gara. Koadroaren geometria, erabilitako teknologia, kalitatea... detailerik txikiena ere kontuan izan behar da. Duela gutxi mendiko koadro berria atera dugu. Zaharra merkatuko onenetakoa zen, baina erabiltzaileei esker hobetu egin ahal izan dugu.

Konpetentzia geroz eta handiagoa izango da.

Hala da. Gainera, Orbea enpresa txikia da. Gu baino hamar aldiz handiagoak direnekin borrokatu beharra dugu. Produktua garatzearen, ingeniariak kontratatzearen eta gure produktua diseinatzekoaren alde apustu egin dugu, baina besteek guk baino ingeniari gehiago dituzte. Specialized enpresak, adibidez, eskularruak egiteko ingeniari bat du!

Zuek kaskoak egiten hasi zarete.

Azken finean, bizikletari lotutako zer edo zer da. Kaskoak eta arropa eskaintzea erabiltzaileek gugandik espero dezaketena

“Hemen txirrindularitza

lehiarekin lotzen da,

baina beste herrialde

batzuetan kirolaren

kultura oso bestekoa da”

zer edo zer da. Kaskoek harrera ona izan dutela dirudi. Ez dugu bizikleta fabrikatzaile soilak izan nahi. Zeelanda Berriko Orca neopreno fabrikatzailearekin banaketa akordioa sinatu dugu, adibidez. Hala, triatloian dagoeneko bizikleta eta arropa eskaintzen ditugu.

Lehiaketak jarraitzen al dituzu?

Geroz eta gutxiago. Lehen zaletasun hutsaz jarraitzen nituen lehiaketak. Orain etxe koentzart garrantzitsuak diren probak bakarrik jarraitzen ditut: munduko txapelketak, Frantziako Tourra... Bizikletan ibiltzen nintzenean lasterketa gehiago jarrai-

tzen nituen. Nire ustez hori orokortu egin da: Espainiako Itzuliak gutxi hitz egiten da, Giroa oharkabean pasatzen da, klasikoak ez dira mintzagai...

Horrek ez al du eraginik bizikleta salmantan?

Beti hori pentsatu izan dugu: lehiaketa munduak eskaeran eragin handia duela. Baina hori ez da toki guztietan gertatzen. Hemen txirrindularitza lehiarekin lotzen da, baina beste herrialde batzuetan kirolaren kultura oso bestelakoa da. Australiako biztanleria Espainiakoaren erdia da, baina bizikleta kopurua bikoitza da. Gainera, bizikleta kirolarekin eta osasunarekin lotzen dute. 5.000 euroko bizikletak erosten dituzte, baina ez dakite Tourra nork irabazi duen. Espainian, berriz, Indurainek Tourrak irabazi zituztenean egun baino bizikleta gehiago ikusten ziren kalean. Mendiko bizikletarekin argi eta garbi ikusten da hau guztia: jendea atsegina delako ibiltzen da bizikletan eta gehienek ez dakite Julien Absalon nor den.

Askotan joaten al zara kanpora?

Nahi baino gehiago, baina beste batzuk baino gutxiago. Gure enpresan, egun, ia denoi tokatzen zaigu kanpora joatea. Izan ere, Estatu Batuetan, Australian, Portugalen eta Txinan filialak ditugu. Askotan bidaiatu beharra dugu: ferietara, beste toki batzuetako merkatuak ezagutzera...

Zenbat langile zarete?

Mallabian 160 gara. Portugalen 40 bat gara, Estatu Batuetan 20, Australian sei... Horiei guztiei sare komertziala gehitu behar zaie: Frantzia, Italian... bulegoak ditugu. Gure merkatu nagusiak Espainia, Frantzia eta Estatu Batuak dira.



Daniel Martinez, makurtua eskuinetik bigarrena, Quebrantahuesos proba ezagunean. Orbeak laguntza mekanikoa eskaintzen die txirrindulariei.

Iparramerikan indartsu sartu zarete.

Duela sei bat urte joan ginen eta denbora honetan guztian salmentak dezente hazi dira. Han errepideko bizikletak saltzen ditugu batez ere. Izan ere, mendiko bizikleta eurek asmatu zuten eta europarren-gandik ez dute halakorik espero.

Epe luzean ikusten al duzu zeure burua Orbea enpresan?

Bai. Lan polita da. Lehengo lehentasuna fabrikatzea zen eta egungo helburu nagusia Orbea ospeko marka bilakatzea da: marka hau munduan zabaltzen ari gara, lehiaketa munduan presentzia nabarmena dugu... Badakigu txikiak garela, baina Trek, Specialized, Scott eta enparauekin borrokatzen gara.

Aipatu dituzun hiru markak Estatu Batuetakoak dira. Orbea Europa mailan punta-puntan dago beraz.

Herralde gehienetan marka lider bat dago. Espainian Orbea nagusi dela esango nuke. Frantzia Lapierre dute, Alemanian Cube... Tokian tokiko marka indartsu hauek ez dute mundu mailakoak izateko ahaleginik egin duela gutxira arte. Seguru aski gurea izango da Estatu Batuetan presentzia nabarmenena lortu

duen Europako marka. Ez dut uste beste inork bizikleta bat lau egunetan emateko azpiegitura sortu duenik. Estatu Batuetako edozein lekutako lagun batek nahi duen modeloa, kolorea eta osagaiak aukera ditzaie eta bizikleta lauzpabost egunetan emango diogu. Amerikarrak eurak ere ez dira hori eskaintzeko gai.

Krisiak bizikleta salmentan eraginik izan al du?

Egia esan, ez dakigu. 2009an 2008an bezain ondo joan zaigu. Espainian oso urte ona izan da, baina Frantzian ez horrenbeste. Hori dela eta, ez dugu uste krisiak eraginik izan duenik: Frantzian gutxiago saldu badugu gauzak beste tokietan baino okerrago egin ditugulako izango da. Dena den, nire ustez krisiak eraginen bat izan beharra du.

Orbea kooperatiba da. Azkenaldian eredu hori ere krisian dagoela saldu nahi dela dirudi.

Niri hausnarketa foro askotara joatea tokatzen zait. Gurea ez da sistema perfektua eta arazoak izatea normala da: batek elkartasunari buruzko interpretazio bat du, besteak bestea... Baina sistemak %90ean konbentzitzen nau: ikuspuntu

ekonomikotik eta sozialetik ona da eta lan-gileen inplikazioa dakar. Ez dut modelo hoberik ikusi oraindik. Egungo erronka nagusia iritsi berriak hezte da: lanpostu hutsa baino gehiago dela, jabeakideak direla eta enpresaren etorkizuna euren esku dagoela jakinarazi behar zaie. Baita gure konpromiso nagusia hemen bertan lanpostuak sortzea dela. Hori baino erronka politagorik edukitzea zaila da.

Azkenaldian enpresa batzuek Mondragon utzi izanak ez al du kooperatiben irudia kaltetu?

Garrantzitsuena ez da Mondragonen egoitea ala ez, kooperatiba izatea baizik. Taldearen barruan ez dutela eroso egotea lortzen? Bai, baina eredu berarekin jarraitzen dute eta printzipio berberak dituzte: demokrazia, lana kapitalaren ginetik... Orbea oso gustura dago Mondragon barruan. Guretzat oso positiboa da. Gainera, munduan ez dago esperientzia honen parekorik eta partaide izatea harro egoteko modukoa da.

Etorkizunean berriro bizikletan ibili nahi duzula esan duzu. Beste zaletasunik ba al duzu?

Ez dut zaletasun berezirik. Lana eta familia dira nire bizitza. Ez dut beste gauza batzuetarako denborarik eta beharrik ere ez. Familiarekin ematen dudana denbora estima handian dut. Lagunekin egoteko ohitura ere badut. Lehen zinera joatea gustatzen zitzaidan, baina orain seme-alabek ikusi nahi dituzten filmak bakarrik ikusten ditut.

Garajea bizikleta on bat izango duzu behintzat...

Duela ia 10 urte erosi nuena... Hori bai, berriro bizikletan ibiltzeari ekiten diodanean, bizikleta berria erosi dut.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ATA

HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduututako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

KEROS

Ekarri zure argazkiak eta nahi
duzun moduan aterako ditugu:
koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60

BIONA

AROTEGIA
Altzariak neurria

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

ALEX - KIBOLAK

alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68

Lanbete

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

HERCE
Instalazio eta Mantentze Enpresa

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

natural optics
URRETXU

Lurdes Rodriguez
Optiko-optometrista

Iparagirre, 1-Urretxu
☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

ALTZARIAK
MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

TABERNA
Jatetxea
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK
KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9. It. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@mendiola.com
www.mendiola.com

Farmanki

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Herri Aldizkaria

Otamotz


TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Oihana - 647 319 757 - beasain@iragarri.net

1940ko hamarkada hasiera

Gaztetxoak

Goran: Presen Sasieta, Carmen Sasieta eta Conchi Leunda. Behean: Jose Mari Azkarate, Javier ..., Arantxa Azkarate eta Miren Sasieta.



gure gomendioa



Aulki-jokoa

Uxue Alberdi

Euskal kostaldeko herri txiki bateko istorioak kontatzen dira bertan, hiru emakumeren ahotik. Teresa, Martiña eta Eulalik euren haurtzaro zein gaztaroko pasadizok gaur egun bizi dutenarekin tartekatuz eskaintzen dizkigute. Izan ere, goxotasun harrigarri kateatzen ditu idazleak iragana eta oraina, bizinahia eta heriotzari diogun izua, malko garratzak eta irribarre lotsatiak... Mundua kafetegia bada, bertan

guretzat erreserbatu dagoen aulkian esertzen gara gu, baina musika gelditzen den aldiro, jokotik kanpo geratzen da norbait. Urte askotako esperientziaz mintzatzun zaigun Teresaren ustez, aulki-jokoa da bizitza. Eta liburu hau jokoko musika da, zeina irakurlea aulkien bueltan gustura dabilenean gelditu egiten baita. Laburra da, bai, baina zeinen jolas polita!

Amaia Iturriotz


Gabeko kalapitxiak

Piztiak

“Gora Piztiak, Euskal Herriko rock talderik onena!”, oihu egin zuen Petti musikariak Piztiak taldeak Ondarroan orain gutxi emandako kontzertua amaitu bezain pronto. Barru-barrutik atera zitzaion. Eta musikan behintzat ona eta txarra zer den neurtzea lan zaila den arren, Piztiak talde beteranoak rock gozagarria egiten du. Rock gordina, tar-teka pop doinuez ondutakoa. *Gabeko kalapitxiak* diskoa kaleratu berri dute ondarru-

tarrek eta orain arteko iritzi onenak jaso dituzte. Piztiak taldeak baditu bereizgarri batzuk; 1980eko hamarkadako pop-rocka esaterako. Korrontearen kontra egin dute, baina letra landuei eta melodia dotoreei esker aurrera egin dute. 14 kanta, 14 istorio, soinu propioa ardatz. Hainbatek 2009ko euskal diskorik onenen artean nabarmendu dute. Petti, egia esan, ez zebilen gaizki.

Igor Susaeta



Moon

Duncan Jones

Etorkizun ez oso urrun batean, Sam Bell astronauta ilargiaren alde ezkutuan bizi da eta meategi batean lan egiten du. Lanbide bakartia eta zaila da. Are gogorragoa matxuratutako satelite batek komunikazio zuzena ezinezkoa egiten duenean. Sam grabatutako mezuen bitartez bakarrik jarri daiteke harremanetan etxearekin. Zorionez, aste pare baten buruan emaztea eta alabarekin elkartu ahal izango da. Paradoxaz beteriko


istorioa da hau. Pertsonaia baten erretratu sakona da, baina bere bitartez hiru gizonen drama kontatzen da. Zientzia-fikzio klasiko omentzen du, baina aldi berean gaur eguneko industriarekin antzekotasuna azaltzen du. 2009an BIFA (British Independent Film Awards)-ren sari nagusia eta Sitges-eko gidoi, aktore eta filma onenarena sariak jaso ditu merezimendu osoz.

ButaK 21 zineklub taldea

Benito eta Laka: Zilarrezko Ezteiak pilotalekuan

Urretxu eta Zumarragan ezin da palaz hitz egin Benito eta Laka aipatu gabe. Bikote honek inguruko txapelketa ia guztiak irabazi ditu eta urte askotan Zelai Arizti pilotalekuko erregeak izan ziren. Aurten 25 urte bete dituzte elkarrekin, erraz esaten da, eta beraiekin hitz egin dugu urte hauei guztiei buruz.

Laka eta Benito, Ederrena pilotalekuan.



Rufino Laka Amorotokoa da, baina 11 urterekin Zumarragara etorri zen. Egun, 52 urte ditu. Benito Martinez urretxuarak, berriz, 48 urte ditu. Azken honek Migel Lasarekin jokatzeko hasi zuen Lakarekin hasi aurretik. Orain aurrelaria bada ere, garai hartan atzelaria zen. Laka atzelaria denez, berarekin hasi zenean aurrera pasatu zen. Lakak, ordura arte Julio Galdeanorekin jokatzen zuen.

Ederki gogoratzen dute noiz eta nola ezagutu zuten elkar. "Zumarragako txapelketako sei bikote onenek ligaxka bat jokatu behar genuen eta, Lasak eta Galdeanok ezin zutenez elkarrekin aritu ginen", aipatu du Lakak. "Entrenamenduetatik ezagutzen genuen elkar, baina ordura arte sekula elkarrekin aritu gabeak ginen", gehitu du Benitok. Ondo konpondu ziren non-bait, ordutik ez baitira banandu. "Bietakoren batek lesioa-edo izan due-



Laka eta Benito, entrenamendua hasi aurretik.

nean bakarrik jokatu dugu beste batekin”, diote.

Baina Benitok bikotekide berria aurkitu behar du aurki. Izan ere, Lakak txapelketak uzteko asmoa du. “Asteazkenetan jokatzera joaten jarraituko dut, baina txapelketak jokatzeari utzi behar diot. Denbora asko daramagu jokatzen. Benitok lasai asko jarraitu dezake, sekulako maila baitu oraindik”, dio Lakak. Bere lagunak ere urteak ez direla alferrik pasatzen aipatu du. “Jarraitzen ez badu pena hartuko dut, baina norberak hartu beharreko erabakia da. Egia esan, oraindik maila ona dugu, baina gazteen aurka komeriak ditugu”.

Dena den, meritu itzela dute: izan ere, oraindik onenekin jokatzen dute. Benitok eta Lakak osatutako Gipuzkoako bikote onenetakoa izan da. Herrialdeko txapelketan behin bakarrik

parte hartu dute eta finalera heldu ziren. Gipuzkoako txapelketa ia guztietan jokatu dute eta Bizkaian ere aritu dira. Ermuan eta Amoroan, hain zuzen ere. “Urrestillan, Azkoitian, Deban... irabazi dugu. Beasainen bost aldiz jokatu dugu

Zumarragako Zelai Arizti parkeko txapelketa bederatzi aldiz irabazi dute eta Urretxukoa, berriz, sei aldiz

finala eta ez dugu irabaztea lortu. 2009an Zumarragako finala galdu genuen, Idiazabalen final laurdenetan

kanporatu gintuzten eta Lazkaon finalerdietan. Ez naiz garai batean bezain erraz errekuperatzen”, aitortu du Lakak. 52 urte dituenek, ez da harrizkoa. Txundigarria 25 urtetan lehiatzeko gai izana da. “Lesioekin zortea izan dugu”, dio Benitok. “Sekula ez dugu kale egin: txapelketa batean izena eman badugu, partida guztiak atzerapenik eskatu gabe jokatu ditugu. Egun berean bi partida jokatutakoak gara”, gogoratzen du Lakak.

Hala, partida asko jokatu dituzte elkarrekin. Ez dakite zenbat. “Urterik onenetan sei bat txapelketa jokatu ditugu. Txapelketa bakoitzean 7-8 partida jokatzen dira”, azaldu du Benitok. Euren txapelketa kuttuna Zumarragako Zelai Arizti parkeko frontoian jokatzen dena da. “Lehenengo pilotalekua oso polita zen. Oraingoa kaka zaharra da. Bertan jokatu genuen lehen finalean zenbat ikusle zeuden jakin nahiko nuke! Zer zen hura! Izugarria da zenbat jende joaten zen. 40 gradurekin jokatutakoak gara”. Zelai Ariztiko txapelketa bederatzi aldiz irabazi dute eta Urretxukoa, berriz, sei aldiz. Senar-emazte askok komeriak dituzten bitartean, Benito-Laka bikotea haustezi-na da. “Noiz edo noiz batak besteari buila egin diogu, baina ez gara sekula haserretu. Eta hori bai... ia partida guztien ondoren elkarrekin afaltzen dugu”, azaldu du Lakak. “Hori da politena: jende asko ezagutu dugu eta lagun asko egin ditugu”.

Euren arrakastaren sekretuaz galdetu diegu. Lakak bere laguna pilotari “oso” dela dio. “Ez dakit nola agoantatu duen horrenbeste denbora nirekin. Bi besoe-kin ondo jotzen du eta sekulako dohai-

Zelai Ariztiko txapelketa lehenengoz irabazi ondoren.



nak ditu. Atzelari hobe batekin goi mailan jokatzeko gai izango litzateke. Ni ez”. Benitok ere hitz onak besterik ez ditu bere bikotekidearentzat. “Sekretua bikotea da. Bietako batek maila ematen ez badu eta guztiz bat egiten ez badute, ez dago zereginik. Laka atzelari oso ona

iruditu zait beti. Beharbada ez ditu beste batzuen dohainak, baina primeran kolokatzen da, aurkako aurrelariari pilota asko kentzen dizkio eta niri segurtasun handia ematen dit. Bikote orekatua gara. Hori da gure sekretua”. Sekretuez ari direla, euren artean hala-


korik ez dagoela diote. “Emazteak ez dira gurekin haserretzen horregatik. Badakite kirola egitea guretzat onuragarria dela eta, gainera, batzuetan partidetara etortzen dira. Kanpoan jokatzeko dugunean, eurekin afaltzen gelditzen gara”, aipatu du Benitok. Gainera, azken honen emaztea Lakaren aspaldiko ezaguna da. “Bera baino lehenago ezagutu nuen bere emaztea izango zena! Ni Saltsamendi baserrian bizi nintzen eta bere emaztea Elorriagakoa da. Benitoren hiru koinata nire koadrilakoak dira!”.

25 urte daramatzate elkarrekin, txapel asko jantzi dituzte... baina entrenamen-

*25 urte daramatzate
elkarrekin, txapel asko
jantzi dituzte... baina
entrenamenduetan beti
elkarren aurka aritu dira!*

duetan beti elkarren aurka aritu dira! “Bikote orekatuak egiteko entrenatzen dugu elkarren aurka. Beti Ederrenan entrenatu dugu. Lehen astean bitan joaten ginen eta orain astean behin. Batzuk harritu egiten dira jokatzeko jarraitzen dugula ikusten dutenean”, azaldu du Benitok.

Izan ere, edonor txunditzekoa da. Baita ospatzeko modukoa ere. “Kostaldera joango gara emazteekin, asteburua pasatzera”, amaitu dute.



Alex Areizaga

Informatika

'Spotify'

Internet gure aisialdirako ohiturak aldatzen ari dela ukazina da. Prentsa irakurtzeko konektatzen gara; bideoak eta telebistako saioak ikusten ditugu, sarean jolas deza-kegu, ebookak irakurri, irratia entzun (*kkin-zona* noski), lagunekin txateatu... hori guztia ordenagailu bidez. *Spotify*rekin, musika ere sarean dohain entzuteko aukera dago, eta legearen barruan (norbait kezkatuta bazegoen). Suediar gazte batzuek sortutako webgunea indarra hartuz doa Europan eta AEBetan ere laster sartuko da, agian Googlerekin aliantza eginez. Erabiltzeko gonbidapena jaso behar da, baina www.spotify.com/en/get-started helbidetik erregistratu gaitzke. Atzetik, gure ordenagailuan instalatu beharreko aplikazio bat deskargatu, ireki, eta nahi dugun artista bilatu ahal izango dugu (Benito, Mikel eta Txomin Artola ere badaude). Doako guztietan gertatzen den moduan publizitate kuña labur batzuk entzun behar dira, baina *streaming* bidez entzuteak deskargatzea eta ordenagailua zaborrez betetzea ekiditen du. Beti bezala mila esker gomendioagatik osaba!



Miren Arrieta

Osasuna

Ospela

Gaztelaniaz sabañón deritzona, odol zirkulazio arazoengatik gorputzeko atal distaletan gertatzen den azaleko hantura da, batez ere esku eta hanketako hatz, belarri eta sudurrean. Neguan agertzen da eta edozeinek izan badezake ere, batez ere umeez eta adinekoek izaten dute. Sarrien sortzen dituen sintomak: inflamazioa, gorritasuna, mina, azkura eta erremina dira. Hauei aurre egiteko ez dago tratamendu berezirik. Garrantzitsua gaixotu aurretik babestea da: horretarako gorputz atalak bero mantendu behar dira, alkohola eta tabakoa ekidin behar dira eta egoki elikatu behar da. Zirkulazioa aktibatu behar da eta odi-zabaltzaileak erabil daitezke.

Hiru

Badira hiru aste bezperako gurutzegrama egiten duela Bittorrek. Begirik itxiko ez duen ohera sartu aurretik jartzen da iraungitako egunkariarekin aurrez aurre, zuri utziko lituzkeen koadrotxoak bezainbat alditan hozkatutako bolaluma hatz dardartien artean hertsirik.

Poliki-poliki, ongi hausnartu ondoren osatzen ditu lerroak. Lerro bat eta erdi minutuko, edo hor inguruan ibiliko da. Saiatzen da buruari bira zentzugabe gehiegi ez ematen, eta lortzen du, baina gero ez dadila segundoko 0,025 lerro triste soilik osatzeaz harritu.

Segundoak segundo, orduak ordu, beti geratzen zaizkio koadrotxo zuri batzuk. Eta egonezinaren morroi bilakatzeko da. Erraietaraino sartzen zaio bolaluma hozkada bakarraz hausteko gogo. Sabelean liztorrak sumatzen ditu tximeleten ordez. Eskutik helduta gainezka egitear nabaritzen ditu malkoak eta sua elkar deuseztatu gabe.

Eguneko egunkaria hartzen du orduan, larri, asmatikoak bentolina bezalatsu. Azken aurreko orriari so egiten diote bere begi irtenek.

Egiptoko jainkoa.

Ra.

Uff! Seigarrengoz berdina galdetzen diotenerako asmatuko du apika.

Krudel.

Anker.

Ufff! Ez dago gaizki horrelakoei buruz ezer ez jakitea.

Suari dariona.

Kea.

Uffff! Hau erraza zen, bai, baina nola asmatuko du sekula kerik arnastu gabeak?

Beren lekura itzultzen zaizkio begiak.

Ez du zalantza ñimiñoena jasaten lipar batez ere, ez zaio beste zalantzarik kabitzen bere baitan. Eta hala, hiru aste daramatza azala koadrotxo zuriz ezkatatuta, bere anaia non dagoen esango dion egunkaririk topatu ezinda.

Zalantzak ez bezala, itxi egiten zaizkio beren lekura bueltatu berri zaizkion begiak. Loak hartzen du orduan, egun-

kariei helduta emaztea besarkatu ordez.

Badira hiru aste Aitor desorientatuta esnatzen dela Julioren etxeko ohean. Gorroto du desorientazioa, berriz azaldu behar baitio bere buruari zergatik eta zertarako eman dion 360 graduko bira bizitzari, bereari eta besteenari.

Alabaina, desorientazioak ernai dirauela dirudi mintzo zaion begi pare bakoitzean. Ez dago kopetako galdera ikurra hatz erakusleaz seinalatzen ez dion ezpainik. Badirudi enplegu bulegoko ilara iraganari buruzko itaunketa zorrotzean baizik ezin daitekeela buka, inon amaitzen bada.

Eta enegarrenez errepikatzen du Aitorrek hiriaren anonimotasuna probatzera etorri dela Madrila, Goierri txiki geratu zaiola. Eta Goierri txikia dela eta Madril handia.

Bazekien, ordea, Juliok ez ziola sinetsiko. Madril handia dela eta hori bai, baina anonimotasunarena bada ez. Juliok ondo gogoan zituen Donostiara inguratzen ziren egunak. Amaren eskutik Conchaz gozatzera hasieran; Igeldoko tiobiboaren erruz, amak maitasun osoz prestatutako tortilla ogitarteko hotza okada bakarraz botatzera ondoren; gau osoa irauten zuten errealaren partidak ikustera gero...

Zer ongi bizi garen gure Minidonostian! Aitorren hitz magikoak izan ohi ziren haiek, hogeitaz ere higa ezin ditzaketen horietakoak. Horregatik esan zion Juliori anaiaren etxean zama gisa zekusala bere burua, unatu zela etxe hartako hirugarren haurra izateaz eta besteak ere halatsu egonen zirela, bai Bittor, bai Miren eta baita neskak ere.

Hortaz, nork du errua, Goierriren txikitasunak ala apoliaren muturrak? Bada ez bata eta ez besteak, suak du erru osoa. Handiena.

Amaia Iturriotz

www.otamotz.com/index.php Web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Beatriz Perez

Beatriz Perez zumarragarra San Jose ikastetxean egin zituen oinarrizko ikasketak. Ondoren La Salle-Legazpin administrazio-ikasketak eta, azkenik, Donostiara joan zen estetika ikastera. Lau urte eman zituen Aurori ileapaindegian lanean eta 1994an Xarmanki ireki zuen. 16 urte hauetan edergintza mundua asko aldatu dela dio. "Irudiari lehen baino garrantzia handiagoa ematen zaio. Egun gure bezeroen artean gaztetxoak eta gizonezkoak ere baditugu. Lehen txirringulak bakarrik etortzen ziren depilatzerara eta aknea zuten gazteak ez ziren ziren etortzen".

Zer izan nahi zenuen umetan?

Nire lehengusuak andereño izan nahi zuela esaten zuela eta nik ez nuela batere argi oroitzen dut.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Denbora libre gutxi dut. Familiarekin egotea gustatzen zait.

Bizitzeko toki bat?

Urretxu-Zumarraga. Sekula ez naiz zumarragar peto-petoa sentitu, baina senarra urretxuarra da eta bera Urretxuren alde jartzen denean nik Zumarragaren alde egiten dut. Dena den, niretzat bi herriak bat dira.

Famatuen artean, nork uste duzu itxura ona ematen duela?

Letizia Espainiako printzesak.

Eta txarra?

Karmele Marchantek. Makillaje gehiegi erabiltzen du.

Ilehoiak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

Egindako azken oparia?

Alabari nezaser txiki bat oparitu diot azazkalentzako esmaltearekin. Orain arte azazkalak jaten zituen eta ohitura hori uztea lortu du. Esmalteak azazkalak indartzen lagunduko dio.

Eta jasotakoa?

Soineko bat.

Data bat?

Seme-alaben jaiotza egunak: Semea Santa Isabel egunekoa da eta alaba urtarrilaren 3koa. Alabaren urtebetetze egunean ere jai hartzen dut beti.

Mutil eta neska izen bana?



Seme-alabenak: Xabier eta Ainara.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Noticias de Gipuzkoa.

Gustuko telebista saioa?

Telesailak ikusten ditut batez ere. Denbora-pasa gisa balio dutenak gustatzen zaizkit, umorezkoak. Bestela ere izaten dira triste egoteko nahikoa arrazoi! *La ruleta de la suerte* ere ikusten dut.

Bereziki gorroto duzuna?

Gran Hermano ez dut sekula ikusi.

Liburu bat?

Richar Paul Evans-en *El girasol*. Oparitu egin zidan, irakurri dudana azkena da eta oso gustura irakurri dut. Nobela erromantikoa atsegin dut, batik bat.

Pelikula bat?

El color purpura filmak markatu egin ninduen. Bigarrenegoz ikusten saiatu naiz eta ezin dut: tristeegia iruditzen zait. *Sonrisas y lagrimas*, berriz, askotan ikusi dut.

Soinu bat?

Pianoarena. Musika banda entzutea ere asko gustatzen zait.

Usain bat?

Udan, lurra lehorra dagoenean, euria egin ondoren sortzen dena.

Janari bat?

Pasta.

Ura ala...


Ura.



urretxu-zumarraga ikastola

0 TIK 18 RA GEUREKIN



 943 72 00 26

www.uzikastola.net

Ikastola zabalik 7:15etik 18:30era, uztaila bame

MATRIKULAZIO EPEA:

Otsailaren 2tik 12ra

AURKEZPEN HITZALDIAK:

Otsailaren 2an (Euskaraz)
Otsailaren 3an (Gaztelaniaz)

ATE IREKIAK:

Otsailaren 3an 15:00etan
Otsailaren 4an 10:30ean





Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak